

ERIKERTZEA (Le diagnostic)

Jokalariak:

JAUN MEDIKUA
PETTE, eria
KATIXA, areba
AITA

(Gela handi bat, oge batekin xoko batean. Pette ogearen azpian mugitzen da. Artetan txistu bat exkapatzen zaio; xoriak ere aditzen dira kanpoan).

*Norbaitek atean jotzen du.
Katixa sartzen da lasterka
eta idekitzerat joaiten da*

KATIXA: Azkenean hor zira Jaun medikua; milesker etorririk. Bazinaki zer hitxikeriak .iotzen gaituen...

MEDIKUA: Ezti zaite Katixa, ezti... Lehenik gau on... Zer duzue? Zure aitaren gibelak ditu berriz ere zonbait berri txar emaiten?

KATIXA: Ez jauna, ez. Aita bera biziki ontsa da. Petteri zaio izigarrikeria bat gertatzen: ez du atzoz geroz hitzik atera...ez da histuz baizik ari. Ogean ezarri ondoan sukarra hartu diogu bainan ez zuen trente-sept-deux baino gehiago. Tisana xorta bat ere edan arazi diot ogi mami ondar batek lagundurik, pentsatuz arrain hexur bat kontrako zintzurrean jautsi zitzaiola. Baina fitsik ez... ea zer diozu zuk bitxikeria hortaz?

MEDIKUA: Zaude deskantsuan Katixa. Ez zaitela kexa. Laster erranen dautzut zer mina mota duen zure anaiak jasaiten. Medikuntzak ezagutzen ez duen eritasunik ez da!

*Medikua hurbiltzen zaio Petteri.
Katixa ere jiten da eta aita agertzen da iluntzean.*

MEDIKUA: Zertan gira hemen? Egun on Pette! Halako aro eder batekin kanpoan, zer ari zira oge huntan etzanik?

PETTE: *(hustuz)* «Haize egoa, gau epela...».

KATIXA: Ikusten duzu! atzoz geroz ez du beste litaniarik. Ez dakit zenbait aire daukun jadan emanik!

MEDIKUA: Alo Pette! Zer gertatu zauzu?

PETTE: *(hustuz)* «Erran dut. erranen et'errango...».

MEDIKUA: Geldi zaite histu hartarik! Baina Pette nun duzu min?

PETTE: *(hustuz)* «Pena dut eta dolore...».

KATIXA: Baina Jaun medikua histuaren bidez dauku zerbait konpreni arazi nahi: «Pena dut eta dolore...»-ren airea du oraintxe bota. Behar bada kantuen bidez zerbait jakinen dugu. Entzun ditzagun; aita zato zu ere lagunduko gaituzu...

MEDIKUA: «Pena dut eta dolore», baina ez da eritasun bat hori! Non harrapatu duzu min hori?

PETTE: *(hustuz)* «Iruneko Ferietan».

AITA: *(airea ezagaturik)* «Iruneko Ferietan» *(kantuz)*

KATIXA: Egia Iruneko Ferietan zazpi egun pasa han higatu dituela berrikitan.

MEDIKUA: *(Petteren ipurdiari lotzeari entseatzu)* Zer du? zezen adar batek minberatsu den toki batean xixtatu?

PETTE: *(hustuz)* «Ez ez dut nahi...».

(Aita kezkatua, ez du kantua ezagutzen...)

KATIXA: Ez duela nahi erraiten dautzu. Beste zerbait ditake.

MEDIKUA: Ez dukala nahi, ez dukala nahi, baina zer nahi duk beraz sendatzeko?

PETTE: *(hustuz)* «Ene maite, ene maite Kattalin...».

AITA: Ha, ez diat ezagutzen kantu hori ere.

KATIXA: *(kantuz)* «Ene maite Kattalin». Aipatzen du Kattalin bat bainan nor ote da, ene anaia estatu hortan ezarri duen deabruxa hori?

MEDIKUA: Has gaiten berriz hastapenetik! *(eta ni batere ez kantari!)* Zer pasatu da orduan Iruneko pestetan?

PETTE: *(hustuz)* «Lili bat ikusi dut».

AITA: *(uros kantuz)* «Lili bat ikusi dut».

KATIXA: Oraintxe aipatu Kattalin tzar hura ditaike ikusi duen lili hori... Baina nor zian neska hori?

PETTE: *(hustuz)* «Intxauzpeko alaba».

AITA: *(kantuz)* «Intxauzpeko alaba dendaria»: Intxauzpeko etxeko andere zaharrak ere burua itzularzi zuela zontbaitzueri bere denboran...

KATIXA: Aita!!

MEDIKUA: Nola gertatu dira gauzak?

PETTE: *(hustuz)* «Iduzki denean».

AITA: Ez ahal duk, itzala dela kausa, neska hori sobera hurbilagotik akokinatu?

KATIXA: Baina utzazu bere ixtorioaren finitzerat!

MEDIKUA: Beraz itzal hortan, zer xuxen ari zinezten?

PETTE: *(hustuz)* «Azken dantza hau...».

KATIXA: *(kantuz)* «Azken dantza hau maitea zurekin...», dantzan ari zintazken.

AITA: Bai, egia irratian pasa arzten die batzutan kantu hori.

MEDIKUA: Baina gero zer deabru erran dizu holako ondorio batetarat heltzeko?

PETTE: *(hustuz)* «Adios maitea adios laguna».

AITA: Ez da neke ez konprenitzeko: azkenean duen lili hura berriz eskupetik eskapatu baitzaio.

KATIXA: Behar bada bestaldi bat ikusten balin badu, elea berriz etorriko zaio. Nik ez dut beste erremediorik ikusten!

MEDIKUA: Pette, badakizu non atseman ginezaken neska hori?

PETTE: *(hustuz)* «My boonie is over the ocean».

MEDIKUA: Hortan ulertua dut, erran dauku itsasoaren bestalderdirat airatu dela.

AITA: Ontsa gira, Ameriketako itzulia egin behar badugu gure semea berriz plomian ezartzeko, ez dugu fini. Alta behar dugu nolazbait txistularikeri hortarik atera... Behar bada bere mintzairan ari izanez, efetu zerbait eginen dio. *(hustuz)*: «Jeiki, jeiki etxekoak».

PETTE: *(Bat batean xutituz eta kantuz)* «Argia da zabala».

*Pette, Katixa eta aita
ateratzen dira kontent kantuz....*

*Medikua, puskak bildu ondoan,
ateratzen da hustuz
«Oi mirakuilu guziz...»*